


A vertical photograph of a lush forest. In the center, a small waterfall cascades over mossy rocks into a pool of water. The foreground is filled with vibrant orange flowers and long green leaves. The background is a dense canopy of green trees.

T X O K O

K U T T U N A K

TURISMO GIDA

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU
ETA BUSTURIALDEA

[2025/04]

LEA-ARTIBAI,
MUTRIKU ETA
BUSTURIALDEA

HITZA



mendexa
ABENTURA PARK

ABENTURA PARKEA ETA TIROLINAK
Guztion neurriko zirkuituak

**6 ZIRKUITU, 23 TIROLINA,
78 ERRONKA ZUHAITZ ARTEAN!**



www.mendexapark.com

Tel. 688856283

f i o g
info@mendexapark.com



MEDEXAKO UDALA

AURKIBIDEA

MENDEXA ABENTURA PARK	2
ISPASTER	4
LEKEITIO	5
LEAKTIBAI · KARRASPIO (Mendexa)	6
AULESTI	7
LEA IBARRA	8
MUNITIBAR	9
ZIORTZA-BOLIBAR	10
ETXEBARRIA	11
MARKINA-XEMEIN	12
BERRIATUA	13
YURRITA (Mutriku)	14
MUTRIKU	15
ONDARROA	16-17
VISIT URDAIBAI	18
BASONDO (Kortezubi)	19
ARROLAGUNE (Arratzu)	20
KAMIÑOKO (Murueta)	20
ARRATZU	21
ALMIKETXU (Bermeo)	22
ATXARRE (Ibarrangelu)	22
BUSTURIA	23
HEMINGWAY (Sukarrieta)	24
EKOBIIDEAK (Leioa)	24
FORUA	25
IZKIRA URDAIBAI FERRYA	26
URDAIBAI EXPERIENCE	26
GAUTEGIZ ARTEAGA	27
BAKEAREN MUSEOA (Gernika-Lumo)	28
NABARNIZ	29
GAMENTXO (Ibarrangelu)	30
OGOÑOPE (Ibarrangelu)	30
EUSKAL SOUVENIRS (Gernika-Lumo)	31
AUKA BIDAIAK (Gernika-Lumo)	31
UR-URDAIBAI	32



Busturiko haitzak

Lekuz leku gozatzeko eta txunditzeko

Udaberri kolorez jantzi dira Lea-Artibaiko, Mutrikuko eta Busturialdeko bazterrak. Zentzumen guztiak asetzeko eskaintzez bete dira. Abentura zein lasaitasuna. Kirola zein gastronomia. Landa-eremuak zein kostaldea. Askok dira turismo gida honek gordetzen dituen txoko kuttunak. Ispasterko Kurtxiatik itsasora begira hasi, eta Nabarnizko herriko plazako jesarlekuan atsedean hartuz amaituko duzu proposatzen dizugun bidaia.

Tradizioa eta jasangarritasuna eskutik helduta datoz argitalpen hone-tan, eta askotariko zerbitzuak bidelagun dituzte. Denak ala denak zain dituzu. Esperientzia berriak probatzeko aukera ezin duzu galdu!

**TXOKO
KUTTUNAK**
TURISMO GIDA
[2025/04]

Argitaratzailea: **Lea-Artibaialdeko Hedabideak E.M.**

Lege gordailua: **BI-2906-03 · ISSN: 2173-7118**

Helbidea: **Arretxinaga Etorb., 1 · MARKINA-XEMEIN · 94-684 44 36**

Webguneak: **www.busturialdea.hitza.eus**

www.lea-artibaiaetamutriku.hitza.eus

Testuak: **11barri eta HITZA**

Publizitatea: **Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZA**

bai
euskara



Bizkaia
turismo gida

Argitalpen honek
Bizkaiko Foru Aldundiaren
laguntza jaso du.

HITZA

Ispaster

KURTZIA



Iñaki Goikoetxea Santamaria



**Iñaki
Goikoetxea
Santamaria,**
(Irakaslea)

**«Kurtxiara heltzea
ederra da,
gune ireki bat
zabaltzen zaizulako»**

Izatez lekeitiarra, hemezortzi urte daramatza Iñaki Goikoetxea Santamariak Ispasterren bizitzen eta Ispasterrez gozatzen. «Bertako auzoetatik oinez, korrikan edo, gehienbat, bizikletan ibiltzea gustatzen zait, eta haien artean Kurtxia da niretzat deigarriena», dio.

Atsegin du Goikoetxeak mendi osteraren atzetik bertan geldialdia egitea. «Sarri Otoiora joaten naiz, eta handik Kurtxiara heltzea ederra da; zuhaitz artean egotetik gune ireki bat zabaltzen zaizulako, eta, gainera, itsasoa begien bistan jarri», azaldu du.

Ikuspegi ederra, etxebizitza dotoreak eta aisialdi gunea

ere badauzka, azken hori mendi bueltaren osteko geltoki ia derrigorrezko, Kurtxia aparte dago-eta herrigunetik, Elexaldetik. Ibiltariak egurrezko mahaiak, kulunka eta iturria topatuko ditu bertan, ariketaren neketik suspertzen lagungarri eta, bidenabar, auzoa patxadaz ikuskatzeko aliatu. Eta ez pentsa horraino helduta aukerak amaitzen direnik. Izan ere, auzoa helmuga eta abiapuntu da aldi berean, hainbat norabide zabaltzen direlako handik, herria auzoz auzo ezagutzeko gonbitea eginaz, eta badira hamaika.

Aitzakiak, soberan

Argazkiak ateratzea laket du auzoko herrikoak; «apartuak, orokorrean», zehaztu du. Zaletasun horri erantzunez, dronarekin ere aritzen da bateko eta besteko irudiak hartzen, Kurtxiakoak, esate baterako. «Leku bera beste ikuspuntu batetik ikusteko aukera ematen dizu». Aldi berean du afizioa akuilu, eta bilakatzen da gailuok probatu beharra alfer-usainak kendu eta mendiotara sarriago joateko aitzakia.



ISPASTERKO UDALA

Elexalde auzoa, 9-1. solairua
94-684 40 25
faxa: 94-624 34 70
udala@ispaster.eus
www.ispaster.eus

Lekeitio



PLAZA

Hitza

Plazako umea naiz. Plazan ibili naiz futboleaz, plazan gelditu lagunekin». Hala arrazoitu du Aitor Iturbe Gabikagojeaskoak plaza herriko toki kuxun aukeratzea. Lotura afektiboa gorabehera, badago pisuzko beste arrazoi bat: balio historikoa. Lekeitio 700. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dagoen honetan, agerian utzi nahi izan du haren esangura.

1325eko azaroaren 3an, Lekeitiok herri-karta eskuratu zuen, eta oroitzapen testuinguruan ondare-lan taldeko kideek, tartean Iturbek berak, *Urdin eta berde artean* erakusketan jaso dituzte herriko gertaera esanguratsuenak, eurretako asko plaza eta inguruak agertoki izan dituztela. Esposizioa urte guztian egongo da ikusgai elizapean, plazako elementu deigarrienetako bat, baina ez bakan. «Berdin da nora begiratzen duzun, dena da eder. Hor dauzkagu eliza bera, gotikoa; udaletxea, barrokoa; eraikinak, frantses erakoak; jakina, plaza bera, Lekeitio bestekoa! Eta portura begira jarrita, kioskoa eta irla. Lekeitio dekoratu baten modukoa da, eta eraikin horiek dotoretzen dute».

Lekeitio, arkitekturaren bidetik

Iturbek dioenez, toki horretan Lekeitioren historia azaltzen da arkitektura aldetik. Hortaz, atzera begira jartzera gonbidatzen du; lehenako Lekeitio irudikatzen. «Lekeitiok historia oparoa eta luzea dauka, eta lehenako herria imajinatzea gaitza den arren, ondorioztatu ahal dugu, esate baterako, plaza txikiagoa eta estuagoa izango zela, ze hondarrari lekua irabazi zaio. Eta Astillerua egon zela ere badakigu. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da hiri-gutu-



Aitor Iturbe
Gabikagojeasko
(Irakaslea eta historialaria)

«Plazan,
berdin da nora
begiratzen duzun,
dena da eder»

na 1325ean eman baziguten ere, herria arinagotik sortuta zegoela. Lekeitioko herria zaharragoa dela argudiatzeko, askoz zaharragoa, erromatarren garaiko aztarnak dauzka, baina oraintsu arkeologoez aztertu dute harresia, eta uste dena baino askoz zaharragoa da, gutxienez 200 urte zati batzuetan».



 **lekeitioturismo.eus**

TURISMO BULEGOA

Santa Elena Etorbidea, 2
94-684 40 17
turismo@lekeitio.eus

**TURISMO AKTIBO
JASANGARRIA**

MENDEXA

Karraspio



MEDEXAKO UDALA



WWW.LEAKTIBAI.EUS

leaktibai@gmail.com

688 826 797



PUENTING



ARROILEN
JAITSIERA



TIROLINAK



ESKALADA



ESPELEOLOGÍA



SURF



BIG SUP



MENDI-IBILIAK



GYMKANA



TAILERRAK



COASTERING



STAND UP
PADDLE

Aulesti

URRIOLARAKO BIDEA

Arene Onaindia Abrisketa

baiaren aldamenetik doa Arene Onaindia Abrisketak gustuko duen paisaia. Errekasto bat dauka. Astoak eta zaldiak ere bai. Pintzeladaz pintzelada margotutako ikuspegia. Urriolarako bidea, Madalenatik hurbil, huraxe du Aulestin toki kutxunen antzerkizaleak.

Lagunekin lotzen du agertokia. Hartu-emanekin. Bizitzako momentu jakinekin: nola txikitakoeekin, hala gaur egunekoekin. «Espazio horrek leku desberdina bete izan du nire bizitzan, garaiaren arabera. Txikitan jolastoki genuen, eta nerabezaroan ere bertara jotzen genuen, sarri Madalenaraino: harunzko bidean masustak hartzen genituen, eta margaritan ipini; eta masustak jaten bueltatu, tarteka kontuak esanez. Batak besteari eguneko bitxikerien berri emanez; ametsak partekatuz», adierazi du. Eta gaur egun ere lagunekin elkartzean harako joera daukate lagunek. «Gauzak partekatzeko leku bat izaten jarraitzen du gu guztiontzat».

Bide leun

Parkea abiapuntu, ibilbideak naturaz gozatzeko aukera paregabea eskaintzen du, bide leunean eta nekerik gabe. Hausnarketarako ere bada aproposa: taldean zein bakar-ka. «Gehienbat lagunekin lotzen dut, baina neure kabuz ere joaten naiz, ze leku ona da norbere kezak eta burukominak arintzeko», esan du.

Ziur dago erbestetarra indartuta aterako dela esperientziatik. Nahikoa da Aulestira egiten den bisitatik hamabost



Arene Onaindia Abrisketa
(Antzezlea)

«Lagunekin lotzen dut; partekatzeko lekua izaten jarraitzen du gu guztiontzat»

minutu horretarako gordetzea, eta irudikatzea Onaindiak bezala beste makina bat aulestiarrek bertan uzten duten urratsa; urrats konpartitua; taupada bakarrean mugitzen den herriarena. Elkarrekin hazten dena.



AULESTIKO UDALA

Donibane enparantza, 1
94-627 90 06
idazkaria@aulesti.eus
www.aulesti.eus

Lea ibarra



**Amaia
Zabala
Goikoetxea**
(Gizaburuagako
alkatea)

**«Gurean Bengolea
oso presente egon
izan da beti;
lehen eta orain»**

Bizkaiko ondare historiko bat da Amaia Zabala Goikoetxearen Lea ibarreko toki kutxunena: Bengo-leako burdinola. Gizaburuagako Okamikan dago, bere auzoan, erreka ertzean. Lea ibilbidearen baitako altxorretako bat da, Mendexatik Munitibarrerainoko ibilbidean; eta merezi du geldialdia egitea haren ustez. «Txikitako une atseginak gogora ekartzen dizkit», adierazi du. Aitaren izeba errotaria zen. Bertan bizi zen, itxi zuten arte, eta bisitan joaten zitzaizkion, olgetan ibili eta bere danbolinean gaztainak erretzera. «Aitak ardiak zeuzkan han, eta askotan joaten ginen, bainatzera ere bai, ze presa oso polita dauka. Hondartza faltan, lehengusuekin eta auzokoekin bertan ibiltzen ginen txipli-txapla».

Uraren soinu lasaigarria

Gaur egun ere jotzen du hara. «Gure umeeekin ere joan gara, eta orain ere, udako beroetan, bainutxo bat hartzen jarraitzen dugu. Askarietarako toki paregabea da, baita txakurrekin paseatzeko edo irakurtzeko ere. Uraren soinuak berak asko lasaitzen nau», esan du.



Bengolea XVIII. mendearen lehen erdian mundu osoko burdinola garrantzitsuenak izan zen, eta Euskal Herriko konplexuenetakoa da. Industriaurreko beste burdinola batzuekin alderatuta, burdina gehiago ekoizteko gaitasuna zuen, Pedro Bernardo Villarreal de Berriz euskal ingeniariak gizaldi hartan egindako berritasunei esker.

Bere edertasunaren eta balioaren jakitun, Bengolea atontzea lehentasun du Lea ibarrak, eta berreskuratzeko plana martxan jarri du eskualdeko turismoa sustatzeko diru laguntzen proiektuaren baitan. Behin behar guztiak amaituta, denek gozagarri egongo da.



**LEA IBARRA
TURISMOA**

Ellexalde, 3
Gizaburuaga
94-684 29 82
www.leaibarra.eus
leaibarra@bizkaia.org

Munitibar

BARKOLONTZI

Pello Lejarzegi Urriolabeitia

Zalantza gutxi egin du Pello Lejarzegi Urriolabeitia Munitibarko toki kutxuna hautatzeko. «Asko aukeratu ahal izango nituzke, guztiak ere Lea ibaiarekin loturik, baina bat guztien gainetik nabarmentzen da: Barkolontzi», adierazi du.

Lea ibaiaren ibilbidean dago Barkolontzi, Munitibarren irteeran, Aulestirantz, ur putzu, ur jauzi eta arboladiak osatutako natur paisaia ikusgarria. Eta badago Lejarzegi-arentzat ordu zehatz bat lekua oraindik apartekoago egiten duena. «Eguerdi partean arbola tarteetatik eguzki izpiak sartzen direnean oso argi berezia sortzen da. Hain zuzen ere, potzuaren erdi-erdia doaz, eta espazio hori oso polita egoten da», azaldu du.

Barkolontzigaz lotuta «umetako pilo bat oroitzapen» datozkio. «Garai hartan, huraxe genuen geure hondartza partikularra udan. Gure planaren parte zen: denbora pasarako joko handia ematen zuen. Gainera, esango nuke guretzat ezeze, herri osoarentzat ere badela kutxuna, gure aurrekoentzat zein ondorengoentzat aisialdirako ezinbesteko erreferentzia, bai etxean, bai kalean entzun izan dudana gatik». Zuhaitza izan da hango elementu ikonikoa, eta faltan bota du, jausi egin zen eta. «Halere, hori ere bizi-zaren parte da. Eta naturak han jarraitzen du».

Guztien bizitzan

Horrenbestez, Barkolontzi «munitibartar guztien bizitzaren parte da», baieztatu duenez, eta ziklo batzuk hasteko ere balio izan ohi du. Horrela gogoratzen du monitore ibili



**Pello
Lejarzegi
Urriolabeitia**
(Irakaslea)

**«Huraxe genuen
munitibartar gazteok
geure hondartza
partikularra»**

zen sasotik. «Udalekuak antolatu izan ditugunean, berezietakoak izaten ziren bertara egiten genituen txangoak, askok hango bainua konfiantza hartu eta igerian trebatzeko baliatzen baitzuten».



**MUNITIBAR
ARBATZEGI GERRIKAITZ
UDALA**

Herriko plaza, 6
94-616 40 07
www.munitibar.org
alkatetza@munitibar.org
idazkaritza@munitibar.org

HITZA

Ziortza-Bolibar

MADALENA ERMITA



Saioa Bildosola Gerrikabeitia



**Saioa
Bildosola
Gerrikabeitia**
(Hezkuntza
Laguntzako
Especialista)

**«Bertakoa izanik,
norbere
sustraietara jotzea
plazerra da»**

Zeinka Zearregiko Madalena ermita du toki gustukoena Saioa Bildosola Gerrikabeitiak. «Bertakoa izanik, norbere sustraietara jotzea plazerra da», adierazi du. Horregatik, behin baino gehiagotan doa bertara. «Askotan joaten naiz, paseo bat emanaz bertako bistekin gozatzeraz», dio.

Gernikara doan BI-2224 errepideari jarraituta heltzen da Zeinka auzora, eskumarantz aldapa igota. Bidean aurrera eginda, Madalena basiliza bistaratzan da, eta begien aurrean, Zearregi eta Gerrika, mendialdeko beste bi auzune. Lekua ederra da, eta Madalena basiliza, herriko onda-

re. XV. mendeko eraikina, hegoaldeko eta mendebaldeko fatxadek bi arku-zorrotz mantentzen dituzte, eta barrualdean nabarmentzekoak dira Maria Madalenari eskainitako aldare nagusia eta irudi herrikoia. Ermitaren ondoan bolatokia dago, non «hiru txirlo» izeneko jokoa egiten den.

Mila eta bat aukera

Bildosolak dioenez, hamaika plan egin daitezke. «Hona datorrenak, herri txikia izan arren, hainbat gauza interesgarri aurkituko ditu, besteak beste, ibilbideak, bai oinez, bai bizikletaz. Herrian bertan, nahiz Ziortzara joanda».

Hain zuzen, bai Simon Bolibar Askatzailearen omenezko museoak herrian bertan, bai Ziortzako monasterioak milaka bisitari jasotzen dituzte urtea joan, urtea etorri. Horrez gain, Done Jakue bidea ere bada aipagarri. Ziortza-Bolibar Harribideak egituratzen du, eta Kaltzada edo Harribidea beti izan da erreferentzia garrantzitsua Santiago de Compostelara (Galizia) Kostako Bidea erabiliz joaten diren erromesentzat.



ZIORTZA-BOLIBARKO UDALA

Simon Bolibar plaza, 3
94-616 57 27
udala@ziortza-bolibar.eus
www.ziortza-bolibar.eus

Etxebarria

KALAMUA



Juanjo Elordi

Kalamura begira jarri da Iñigo Larrinaga Beristain Etxebarriko leku kutxuna aukeratzean, ume eta gazte sasoiarekin lotzen duelako. «Txitxiburduntzia egiten genuen inguruko mendietan, eta, jakina, Kalamuan ere bai. Hortaz, beti lotu izan dut txikitako oroitzapenekin, nahiz eta gero horrenbeste igo ez, kanpora joan nintzen-eta bizitzera», onartu du.

«Titiritero irakasle» modura deskribatzen du bere burua Larrinagak, hanka eta erdi irakaskuntzan eduki arren, ikus-entzunezkoei lotuta jarraitzen duelako. Lotura hori ez du eten, mendiarekikoa eten ez duen bezala. «Nahiz eta mendizale baino gehiago hondartzazale izan, biak behar ditut bizi izateko; gustura egoteko eta oreka bilatzeko. Azken batean, jaiotzetik beti presente eduki dut mendia nire bizitzan, mendi tartean jaio nintzen-eta, ze Etxebarria halaxe dago, mendiz inguratuta. Nire jaioterrian bizi nintzelarik, etxetik burua ateratzen nuenean, begi bistan mendiak neuzkan. Beraz, mendia niretzat garrantzitsua izan da, zelan ez».

Talaiarik onenetakoa

Kalamua mendiaren muina Etxebarriko lurretan dago, eta bertatik Artibaiko arana bistaraten da. 770,30 metroko garaiera dauka, eta euskal mapa fisikoko talaiarik onenetako bat da.

Horrez gain, historiaren ikuspuntutik toki esanguratsua da. Horren erakusgarri, hiru datu: gutxienez brontze edo



Iñigo Larrinaga Beristain
(Titiritero irakaslea)

«Txitxiburduntzia egiten genuen mendiotan, eta, zelan ez, Kalamuan»

burdin arotik bizi izan dira pertsonak bertan; 1390ean eta 1942an, Akondiaiko larreetan Oinaztarren eta Ganboatarraren arteko borrokaldiak gertatu ziren, banderizoen garaian; eta 36ko gerran gudarien eta faxisten arteko borroka latzen lekuko izan zen.



Etxebarria
udala

ETXEBARRIKO UDALA

Peñanekua plaza, 1
94-616 64 32
udala.etxebarria@bizkaia.org
www.etxebarria.biz

HITZA

Markina-Xemein

AKARREGIRA BIDEAN



Lucia Conzi Bavio



Lucia
Conzi
Bavio
(Doula)

«Ez dakit toki horrek ze energia ematen didan, baina asko gustatzen zait»

Oinez egiteko gogo apurra, besterik ez da behar Lucia Conzi Bavio argentinarren Markina-Xemeingo gustuko tokia topatzeko. Arretxinaga auzoan dago, Akarregira bidean, hain zuzen ere porlanera heldu aurreko tokian. Orain dela hamar urtetik bizi da bertan, eta txoko horrek hasieratik erakarri du.

Handik, batetik, Markina-Xemein ikusten da, eta bestetik, Oiz. Buenos Aireskoak dio hasieratik bertatik gusatu izan zaiola haraino joatea. «Etorri nintzenetik beti ahalegintzen naiz ibilaldi bera egiten; herri beste ikuspegi batetik ikusten. Distantziatik. Eta ez dakit zergatik den, ze

energia ematen didan, baina toki zehatz hori asko gustatzen zait», azaldu du.

Markina-Xemeingo paisaia menditsuak zerikusirik ez dauka jaioterriko panparekin. «Hasieran erabat harrituta geratu nintzen begi bistan neukanarekin. Hemen dena da mendia: herria oso aberatsa da zentzu horretan. Aukera asko dauzkazu naturarekin kontaktuan egoteko».

Eta gehiago

Nolanahi ere, eta non aukeratua edukiagatik, hasieran bilatu zuen toki horretxekin berarekin geratzen da toki kuxuna aukeratzean, eta bisitatzera gonbidatzen ditu herria ezagutzera datozenak. Irteera biribiltzeko, Akarregiko bide zirkularra egin daiteke (433 metro dauzka eta Arno mendigunearen parte da), edo inguruko eraikin esanguratsuak bisitatu: Barroeta jauregia, XIVtik XV. mendera bitartean egina eta antzinako leinu borroken lekuko mutu; eta Arretxinagako Done Mikel ermita, Xemeingo Elizatea izan zenaren parte.



MARKINA-
XEMEINGO
UDALA

Goikoportala, 3

94- 616 74 54 • WhatsApp: 688 84 49 95
udala@markina-xemein.eus
www.markinaxemeinturismoa.eus
www.markina-xemein.eus

Berriatua

KALAMENDI

Aitor Saizar Murelaga

Berriatuko mendietara joateko ohitura handia dauka Aitor Saizar Murelalgak, herritik irteteko. «Zibilizaziotik apurtxo bat alde egiteko gogoa edukitzen dudanean, mendira zein itsasora jotzen dut, biek lasaitzen nautelako. Eta horretarako toki-rik aproposena Kalamendi mendia da, batetik hara joanda mendian nagoelako, eta bestetik itsasoa begi bistan geratzen zaidalako», azaldu du.

Herriaren ezaugarriek ahalbidetzen dute bere zaletasuna erraz asetzea. «Berriatuak berezitasun bat dauka, ze nahiz eta barruko herria izan, kosta ere badauka, eta Kalamenditik, zer edo zelan esatearren Berriatuko balkoitik, herria ezezik, kostaldea ere ikusten da», esan du. Arrazoi horregatik izan da arrantzaleentzat erreferentzia puntu porturako bidean.

Askok kosta gabe heltzen da Kalamendiraino. Hainbat bide daude bertara joateko. Bat gomendatzen du berak, neke barik egiteko modukoa, bateren bat zalandan balego ere. «Futbol zelai paretik irtenda Miloitik joanda, adibidez, pauso lasaian ordubetea bertan zaude».

Frenatzeko

Rally pilotua da Saizar, eta Kalamendin lasterketarik egitea ezinezkoa bazaio ere, mendi hori bere zaletasunarekin lotzen du, presioa askatzeko baliatu ohi du eta. «Lehiaketetan nerbioak egoten dira, eta estresatuta ibiltzen gara. Eta nik Kalamendi arnasa hartzeko eta korrika egi-



Aitor Saizar Murelaga
(Pilotua)

**«Kalamendi
arnasa hartzeko
eta burua argitzeko
erabiltzen dut»**

naz burua argitzeko erabiltzen dut, neure airera ibiltzeko karrerak orduko».

Kalamendi itsasotik 315 metrora dago, pinudia nagusi da eta behin bertara helduta bidea luzatzeko aukera egon daiteke, bide sarea dago eta, seinailzatuta.



**BERRIATUA
ELIZATEKO UDALA**

Herriko plaza, 1
94-613 70 30
faxa: 94-613 70 27
udala@berriatua.org
www.berriatua.org

HITZA



BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENeko ETA ONLINE SALMENTA



**KANTAURIKO
ANTXOAK ETA
BOKARTAK**



**HEGALUZZEA
ETA
HEGALABURRA**



**ESKUZ
EGINDAKO
KROKETAK**



**BESTELAKO
GOURMET
PRODUKTUAK**



Zuzeneko salmentaren ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 9:00-15:00



Online salmenta: www.tiendayurrita.com



sarean edota dendan erosteagatik

%20ko deskontua

Zuzeneko salmentan: 50 €-tik gorako erosketetan, maiatzaren 15a arte erabilgarri (kupoi hau aurkeztuz)

Online salmentan: 50 €-tik gorako erosketetan ondorengo kupoia sartuz: #UDABERRI20



(+34) 627 38 46 45



pedidos@yurritagroup.com



Casa Mauleon Etxea

Mutriku

ARNO MAGALEKO ARTA BASOA



Maider Gorritiberea Astigarraga



**Maider
Gorritiberea
Astigarraga**
(Hezitzailea eta
ukendu eta
infusio egilea)

**«Arnora bidean,
geratu, behatu eta
momentua bizi;
hor nire gomendioa»**

Arno magalean dago Gorritiberearen Mutrikuko tokirik gustukoena, arta baso bat. Balio handiko lekua da bere ustez. «Batetik, Euskal Herrian gero eta arte baso gutxiago daude, eta bestetik, oso harritsua da, bere kobazulo eta guzti —inguruan badaude batzuk—. Horregatik guztiagatik da niretzat toki kutxun», azaldu du.

Eguzkitsu dagoenean distiratsu eta artapean itzala emateko prestu ageri da txoko hori. Eta haren isiltasunean bilduta egotea gustatzen zaio mutrikuarrari; burua eta gorputza pausatuta eta inguratzen duenaz kontziente.

«Txikitatik eduki izan dut lurrarekin konexioa: mendiekin eta basoekin; zuhaitz eta hostoekin. Neure buruarekin bakean sentitzera eramaten nau, eta gauza askorekin konturatzera», adierazi du. Inguruan bazter askok ematen dute horretarako aukera. Arnoko magaleko arta basoak, zeresanik ez. Horrenbestez, beste begi batzuekin begiratzeari eskatzen dio bisitariari. Gelditzea eta identifikatzea. «Basoak amalurrarekin lotzeko aukera ematen dizu, gauza ederra gaur egun bizi dugun erritmo frenetikoan. Ez dago Arno puntara segituan heldu beharrik: geratu eta behatu; eta momentuan momentuko egoera bizi. Horixe, nire gomendioa», dio.

Sarri bisitan

Urte guztian da erakargarri Arno Gorritiberearen esanetan. Oraintxe, udaberrian, nahiz udazkenean; «lurra orbelekin estaltzen denean, kolore biziz». Eta berak ahal duen

guztian jotzen du bertara, nahiz eta gaur egun astearen egunik gehienak herritik kanpo pasa. «Baratza eta animaliak Barakaldon dauzkate, baina Mutrikun nangoenean beti bilatzen ditut momentuak bertatik pasatzeko».



GEOPARKEA

**TURISMO
BULEGOA**

Txurruka plaza z/g

943-60 33 78

turismo@mutriku.net

www.mutriku.eus

HITZA

Ondarroa

KALIAN GORA, MARIA BEHERA



Ondarroako Udala

Tintazko bideak

Ondarroako kaleak, paisaiak eta herritarrak euskal idazleen lanetako protagonista eta inspirazio izan dira sarri. Horri balioa eman eta erakutsi nahirik, martxan da **Kalian gora, maria behera Ondarroako idazleen ibilbideak** egitasmoa.

Bi ibilbide prest daude. Ana Urkizaren *Ondarroako piratak* eta Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao*. Biek daukate abiapuntu bera, Kantoipe errebuelta, eta seina geltoki: Kofradia Zaharra, Arraun Elkarte, Sabin Arana, Kaleandi, Udaletxea eta Plaiko Zubixe, lehenak; eta Kofradia Zaharra, Nasa kalea, Kaleandi, Andra Mari eliza, Pixape kalea eta Antiguako amaren basiliza, bigarrenak.

Bakoitzean, panel bat dago, QR kode batekin, eta behin hara sartuta, idazlea agertuko zaie kontalari eta anfitrui. «Idazleei askatasun osoa eman diegu, bai lekua aukeratzeko, bai nahi dutena esateko. Hortaz, ez da euren lanaren lagin bat entzungo, baizik eta idazlearen gonbidapen bat. Erakusgarri bat; jendeak ibilaldia gero bere kasa egiteko», azaldu du Maite Rey Ondarroako Udaleko euskara teknikariak. Plaka batzuk etxe pribatuetan ipini behar izan dituzte, eta etxejabeek ez dute horretarako inolako eragozpenik jarri. Arrazoi horregatik, udalaren izenean eskerrak eman nahi izan dizkie.

Ondarroa



Txokotik txokora egin ahala emango dira ezagutzera idazleen oroimen eta kontakizunik gogokoena, benetan bizitakoak zein asmatutakoak. Oraingoan Urkizarenak eta Uriberenak, eta hurrengoan Leire Bilbao eta Mikel Etxabururenak, azken horiek udalak aurtan prest edukiko dituenak. «Eta etorriko dira gehiago ere. Azken batean, herrian potentzialtasun handia dago; idazle ugari eman ditu. Eta bakoitzak berezko kontatera eta estiloa eduki arren, denek daukate komunean kresalak bustitakoak direla, ze denen lanetan beti agertzen da Ondarroa zer edo zelan; bere izaera», azaldu du.

Normalean horrelako proiektuak aspaldi herriak emandako idazleekin hasten dira; bide bat egin dutenekin. «Oraingoan erabaki zen bizi daudenetatik hastea. Dena dela, denetara heldu behar gara, eta elkargunea beti izango da Kofradia Zaharra edo Alde Zaharra», dio Reyk.

Proiektuak turismo sailaren diru laguntza eduki du. «Izan ere, helburua hori ere bazen: Ondarroa euskal kulturaren baitan kokatzea. Inor badator Ondarroara, datorrela euskal kulturaren leku bat daukalako». Bisitarien profila, halere, anitza izan daiteke. «Ibilbide hauek bakarka zein taldean datozen askorentzat izan daitezke interesgarriak, besteak beste, euskara ikasle eta irakasleentzat, familientzat eta literatur tailerretako eta irakurle taldeetako kideentzat, ze esperientziaren osagarri, geure euskara entzun eta praktikatzeko aukera edukiko dute, herriko altxor literarioa zabalduaz batera».

Kalian gora, maria behera

Ordubeteko ibilbideak dira, bai Ana Urkizarena, bai Kirmen Uriberena, eta denak dira irisgarri, nahiz eta, izenburuak iradokitzen duen modura, aldaparen bat edo beste igaro beharra egon. «Bi abesti gogorazten dizkigu, *Kalian gora* —abesti herrikoia— eta *Maria gora, maria behera* —Ondarroagaz lotura estua zuen Itoiz taldearen abestia, Jose Mari Argoitia herritarraren letrarekin—, eta herriaren ezaugarri topografikoak deskribatzen», esan du Reyk. Era berean, kalea eta itsasoa uztartzen ditu, eta mugimendu bat adierazi, herri bizi baten seinale.



Ibilbideaz gozatzeko aholkuak:

- Erabili mugikorra geldialdietako QR kodeak eskaneatzeko eta idazleen bideoak ikusteko.
- Irakurri paneltxoetako informazioa, bakoitzak txoko eta istorio ezberdin bat azaleratzen duelako.
- Saiatu ibilbidea goizean edo arratsaldean egiten, argi naturalak herriko kaleak beste modu batean nabarmentzen baititu.
- Gelditu eta arnastu Ondarroako itsas usaina. Bertako giroak literaturaren testuingurua sakonduko dizu.
- Ikuspegi zabalak topatuko dituzu kairik kai, geldialdi bakoitzean paisaia eta giroa gozatuz.
- Euskaraz egin zure esperientzia, hitzen magia tokian tokiko hizkuntzan bizi dadin.



ONDARROAKO UDALA



TURISMO BULEGOA • 94-683 19 51
Erribera, 9 (Kofradia Zaharra)
turismobulegoa@ondarroa.eus
www.ondarroa.eus
www.udalbarriak.eus

bisita
gidatuak

 Visit Urdaibai
© bai Nueva Europa

VISIT
GERNICA




Kultura
Natura
Ondarea
Turismo Jasangarria



EUROPARC
Turismo Sostenible en
Especies Protegidas



etikea
Turismo Euskadi

30
NUEVA
EUROPA
1995etik



www.visiturdaibai.com
634 243 762 @visiturdaibai

Kortezubi



BISITA MOTAK

Norbanakoak:

Parkeko sarreran azken gertakizunen berri emango dizuegu (jaiotzak, espezie berriak...). Ibilbidean zehar, animalia bakoitzari buruzko panel informatiboak ditugu.

Taldeak: Aldez aurretik antolatutako bisitak dira egokienak (euskaraz eta gaztelaniaz). Ibilbide osoan zehar, animalien inguruko ezaugarri guztiak azaltzen joango da gidaria. Hark zenbait animalia ukitzeko aukera ematen du.

Ikasleak: Naturari buruzko azalpenak ematen dira, taldearen adinari egokituta (haur zein nerabeak). Animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen da. Bisitak goizekoak edo egun osokoak izan daitezke. Egun osokoa bada, arratsaldean landa praktikak egiten dira.

ORDUTEGIAK

Astelehenetik ostiralera:

11:00etatik 15:00etara.

Larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan:

11:00etatik 18:00etara.

PREZIOAK

Norbanakoak: Helduak 10 euro eta umeak 6.

Taldeak: Bisita gidatuatarako erreserba egin behar da. Taldea 20 pertsona baino gehiagokoa bada, sarrera ordaindu eta gidaria dohainik izango da. 20 pertsonatik beherako taldeek, 35 euro ordaindu beharko dituzte gidaria eduki nahi izanez gero.



Basondo, basafaunaren babesleku

Animalia basatiek ere badute beraien etxea Euskal Herrian, eta Basondo da horietako bat. Zoologikoa izatetik urrun, bertako basafaunaren babeslekua da Basondo. Arrazoi desberdinak tarteko, bertan dauden animaliak ezin dira naturan askatasunean bizi, oreinak, otsoak, katamotza, sai arrea eta putrea, esaterako.

Animalia hauek zaindu eta sentibilizazio lana egitea dute helburu, irabazi asmorik gabe. Animalia gehienak errehabilitazio zentroetatik datozenak dira, eta gertutik ikusi eta

kontaktu zuzena edukitzeko aukera dago kilometro bateko ibilbidean zehar, nahi izanez gero azalpenez lagunduta.

Faunaren aterpe izateaz gain, geologia eta botanika berezi batek ingura-tzen du Basondo. Euskal Herriko basoa ikusi daiteke bertan, arestiekin, esaterako. Parean, babesitutako gunea dago: artadi kantauriarra. Kareharria da bertako lurra, eta horrek dolinak eta kobazuloak egotea errazten du. Horietako bat, esaterako, Basondoko ibilbidearen barruan ikusi daiteke.



BASONDO BABESLEKUA

Basondo auzoa, 6 - Kortezubi

94-625 44 36

info@basondo.com

www.basondo.com



ARROLAKO LAGUNE

ARROLAKO
OPPIDUM-AREN
INTERPRETAZIO
ZENTROA

IGANDE GUZTIETAN ZABALIK
10:00-14:00 ARRATZU
Sarrera doan

MAIATZAK 18
igandea

**BISITA GIDATU
BEREZIA OINEZ
ARROLAKO
OPPIDUM-ERA**

9:00h ARRATZU
PREZIOA: Helduak15€
6-12 urte7,5€
<5 urteDoan

**AURRETIZKO ERRESERBA
ONLINE EDO TELEFONUZ**



634 243 762

Kamiñoko
erretegia • jatetxea

Gernika-Bermeo errepidea
94-625 51 46 MURUETA
kaminokomotxo.com




Urdaibai bihotzean kokatuta dago Kamiñoko jatetxea. 2012an Motxok eta bere talde profesionalak ireki zituzten berririo jatetxeko ateak. Haragietan, arrainetan eta euskal sukaldaritza tradizionalan espezializatuta gaude. Lau jangela zabal ditugu 700 lagunentzako lekuarekin.

Arratzu



Hitza

Arratzuarra da Jurgi Arejita Uruburu sukaldaria, eta nahiz eta asteko egun gehienak Bilbon eman, ahal duen guztietan joaten da herrira; ahal badu, Golako erreka, huraxe baitu herriko tokirik gustukoena.

Bilboko jatetxeak eta gastro dendak ordu asko kentzen dizkio, eta erlaxatzeko eta ideia berriak harilkatzeko baliatzen du Golako erreka bisita. Handik paseatuta hartzen du sukaldariak atseden, eta gelditu. «Gaitza da Arratzun leku bakar bat aukeratzea, eh? Ze Arratzuko frontoian ere makina bat ordu sartu ditut txikitan palan jolasten, eta niretzat aparteko tokia da hura ere. Baina egia da Golako erreka bereziki kutxuna dudala, batetik, umetan txakurrekin ibiltzera edo uger egitera joaten nintzelako bertara, eta bestetik, gaur egun deskonektatzen laguntzen didalako», adierazi du.

Mendi ibilbidearen barruan

Golako ibaiaren bidea PR BI-167 ibilbidearen baitan dago. Erraz egin daiteke, eta bidean Santo Tomas eliza monumentalak ikusi ahal da edo Artzubiko zubia igaro, basoaren edertasunean murgiltzeaz gain. Harrizko pasabidea Loiola auzoa baino gorago dago, Markina-Xemeinera bidean. Nahiz batera nahiz bestera joan, bisitariari gozatzeko moduko paisaiak bistaratuko zaizkio. Horren haritik, Mendatako gazteluraino joatea ere bada gomendagarria Arejitaren ustez. «Ibilaldi polita egin daiteke haraino».



**Jurgi
Arejita
Uruburu**
(Sukaldaria)

**«Gaur egun
deskonektatzen
laguntzen dit»**

Errekaren doinuek lagunduta paseatu ostean, Arratzuko tabernan bazkaltzea ere plan ederra izan daiteke, bere esanetan.

Ez dauka saltzeko jaioeterrria Arejitak, Bilbon bizi arren. «Nire herria Arratzu da», gogorarazi du.



**ARRATZUKO
UDALA**

Loiola auzoa, 2
94-625 68 84
udala@arratzu.eus
www.arratzu.eus



Almiketxu Erreteria

Almike Auzoa, 8 Bermeo

94-688 09 25

almiketxu@gmail.com

www.almiketxu.com



ATXARRE

Taberna kafetegia

Antzora, 24 Laidako Hondartza 48311 Ibarrangelu 94 627 65 67

Busturia

SAN ANTONIO HONDARTZA

Ainhoa Elorriaga Baraiazarra

Gaztetako momenturik onenak gogorarazten dizkio San Antonio hondartzak Ainhoa Elorriagari. Gainera, urteekin haren balioa handitu egin da busturiarrarentzat, bere aliatu ere bihurtu da eta. 24 urterekin auto istripu larria eduki ostean, koma eta koma indusiztuan bost hilabete eta erdi, fetu posizioan bi urte eta hilabete bat eta urteak zutunik jarri eta mugitu eta ezer egin ezinik egon eta gero, errehabilitaziorako baliatzen du. Hortaz, huraxe du tokirik kutxunena.

Udan, tokirik maiteenetako bat zuen Elorriagak aspal-di. «Goiz guztia bertan ematen genuen lagunok, uretatik irten barik». Inguruetako beste hondartza eder batzuk ere bazituen gustuko, baina orain ez du besterik nahi. «Orain pentsatzen dut: eskerrak Busturian bizi naizen, ze errehabilitaziorako on egiten dit hondartzan ibiltzeak. Niretzat hara joatea, are busti gogorrean ibiltzea, da hobeto ipintzeko biderik onena, ze badakit jausita ere ez dudala minik hartuko. Horregatik, udan nahiago dut igerilekura baino hondartzara etorri: itsasoan sentsazioa beste bat da; gehiago flotatzen dut eta saltoka ere ibili ahal naiz. Nork esango zidan niri berriro horrelakorik egiteko gai izango nintzenik! Hondartzak niri asko ere asko lagundu dit», esan du.

Etiket hurbil

Bizilekutik hurre dauka Elorriagak San Antonio hondartza, eta sarri joaten da bertara. «Begiratzen dut eta emozionatu egiten naiz gogoratuta zelan ibiltzen ginen txirlak batzen, aguadillak egiten... Eta pasatakoak pasa-



Ainhoa Elorriaga Baraiazarra
(Kazetaria)

«Niretzat Busturiko hondartzara joatea da hobeto ipintzeko biderik onena»

ta, momentu horiek berriro bizitzeko kapaz naiz!». Beti berdina eta beti desberdina, hondartzaren ñabardura guztiak argazkietan betikotuta dauzka, ezagunagoak eta orain arte ez hain ezagunak. Izan ere, bazter berriez ere jabetu da. «Lehen ez bezala, orain arrokak dauden lekura ere joaten naiz errehabilitazioa egitera», dio.



BUSTURIKO UDALA

Axpe,1
94-687 00 50
alkatea@busturia.eus
www.busturia.eus

HITZA

HEMINGWAY KANALA HOUSE

ZURE ZAIN GAITUZU



inspiratu
zaitez



EDERTASUNA ETA OSASUNA

Spa, sauna eta
masaje terapia

LORATEGIA

Lorategi zoragarria
itsasora begira

NATURA

Naturazaleentzat
ihesaldia egiteko
toki paregabea



Mundakako
itsasadarraren
bihotzean



HEMINGWAY Kanala House

Kanala Auzoa 19 · SUKARRIETA
(sarbidea, Gauteigiz-Arteagatik)
<https://casarural-kanala.com/>
casaruralkanala@gmail.com
666 68 08 01/ 618 77 43 98



Urdaibai

Urdaibaiko Biosfera Erreserban paisaia bikainak uzten dizkiguten garrantzia handiko hainbat elementu geologiko ditugu, eta hauek osatzen duten herrien historiaz hitz egiten digute.

Oinez edo itsasontziz, animatuko zara horiek aurkitzera?
Oka ibaiaren estuarioaren ezkerretatik eskuineraino, Gernikatik igaroz, Euskal Herriko geodibertsitate bereizgarrienaz betetako barnealdea eta kostaldea dugu: flysch-ak, diapiroak, dúnak, harrobiak, fosilak eta arroak. Zeuk erabaki!

Baso bainuak

Jarduera hau esperientzia zentzuzkoa da. Iraupen laburreko ibilaldiak lasaia egitean datza naturan murgilduta. Oraintxe bertan, aktibitate hauek Arratzun, Gernikan eta Muruetan egiten ditugu. Bisitan zehar, ingurune elementu naturalak behatzen dira; isiltasuna eta soinua naturalak gozatu ahal izango dituzu. Basoen eraginak eragin zuzena du pertsonen ongizatean. Begiratu nahi al duzu?



EKOBIIDEAK

Kontaktua:

666 85 77 61
688 62 72 42

ekobideak@gmail.com

www.ekobideak.com



Ekobideak Bizkaiko kooperatiba txikia da, Geoturismoan eta Ingurumen Hezkuntzan diharduena. Geologo adituak gara ondare geologikoaren gidaritzan eta interpretazioan; Urdaibaiko biosfera erreserbak eta euskal kostaldeko geoparkeak ziurtatuta. Busturialdea-Urdaibaian baso bainuen helmuga turistikorako ziurtagiri gidak izateko prestatuta gaude ere.

Geoturismoa eta
Ingurumen
Hezkuntza...
hauetaz eta zeozer
gehiago!

Forua

ERROMATAR HERRIXKAREN AZTARNAK



Hitza

Herrixka erromatarrek egiten du Forua berezi Jesus Irazabal Olaeta Urdaibai Dantza Taldeko presidentearentzat. Erraz uzten du irudimena hegan harri zaharrei begira, lehengo emakume eta gizonen bizimodua irudikatzen. Zelan biltzen ziren eta zelan harremantzen.

Urdaibai itsasadarren bihotzean egonik, huraxe dute lehenengo erreferentzi forutarrek, eta bat dator haren balioa nabarmentzean. «Baina Foruan bertan, herri-herrian, uste dut erromatar herrixkaren aztarnak direla punturik eta interesgarriena», dio herriko dantza elkar-teko buruak. Indusketa arkeologiko baten bidez azaldu ziren orain 40 urte inguru, eta agerian utzi I eta V. mendeen artean erromatarren herrixka bat egon zela Foruan, 15 hektarea ingurukoa. —hortik, % 40 gordetzen da—. «Gune hori oso interesgarria da, ez bakarrik bertokoen-tzat, ez badaze inguru guztiarentzat ere».

Aztarnek diotena

«Itxura denez, merkatalgintza ere oso garrantzitsua izan zen. Bertan agertu diren etheen seinaleek erakusten dute hori», gehitu du Urdaibaiko dantzarien buruak. Bestalde, Tourseko San Martin parrokiaren azpiko arrastoek adierazten dutenaren arabera, egungo hirigunea azken milurtekoaren hasieratik egon izan da bertan. Zehatz-mehatz, gainjarritako eliza gotiko bat eta Erdi Aroko zenbait nekropoli aurkitu dituzte.



Jesus Irazabal Olaeta
(Urdaibai Dantza Taldeko presidentea)

«Kuriositatea eragiten dit pentsatzeak zelako bizimodua zeukaten»

«Aztarnoi begira imajinatzen dut jendea hartu-emanetan bertan. Eta kuriositatea eragiten dit pentsatzeak zelan konponduko ziren elkarrekin, zelakoa izango zen euren bizitza; erromatarrek ze kultur ekarpen egingo zuten eta zelan moldatuko ziren batzuk besteekin», esan du.



FORUKO UDALA

Elejalde auzoa, 1
94-625 51 16
94-625 51 80

idazkaritza.forua@bizkaia.org
www.forua.net



Mundaka - Laida - Sukarrieta FERRYA

IZKIRA URDAIBAI

www.izkiraurdaibai.com - 633 33 12 30



- **Esperientziak eta Bisita Gidatuak**
Urdaibai-n

Urdaibai Experience-en, natura, historia, kultura eta gastronomia batzen ditugu. Inguratzen gaituen ondare anitzasuna sentitzeko eta blaitzeko. Gestore kultural eta lekuko gidari bezala, esperientzia-paregabeak sortzen ditugu.

- **ETX, mendeko landelaren**

Etxelala gure landa-etxea da, Urdaibai erdian kokatua. Bake eta lasatasun aterpea non zure oporrak familiarekin edo lagunekin gozatu ahal izateko.


ETXELAIA


URDAIBAI
experience & travel

aupa@urdaibaixperience.com | info@etxelaia.com
urdaibaixperience.com | etxelaia.com
[@urdaibaixperience](https://www.instagram.com/urdaibaixperience) | [@etxelaia](https://www.instagram.com/etxelaia)
+34 944 669 804 | +34 622 017 175

Gautegiz Arteaga

SAN LORENTZOKO BASELIZA



Gautegiz Arteagan San Lorentzoko basiliza derri-
gor ikusi beharrekoa da Jesus Arrien Erkoreka-
rentzat, bere kultur balioarengatik zein bertatik
paduraren ikuspegi ederra dagoelako, eta dio
bereziki maite dutela herritarrek.

Isla Bekoa auzoan dago abadearen toki kutxuna, Urdai-
baiko itsasadarrarri begira. Ozollo auzotik abiatuta eta
mareen errotaren ertzetik joanda, 20 minutuan heltzen
da bertaraino. Kultur ikuspegitik esanguratsua da. Erai-
kuntza xumea, XVI. mendekoa da, eta bere hormetako
batean harritzko bloke bakar batean landutako erromani-
ko aurreko leiho bat gordetzen du, X. mendearen erdial-
detik XI. mendearen erdialdera bitartean datatua. Zizelez
eta puntaz landua, behealdean bi bao ia laukizuzen ditu,
zutabe batez bereizita, eta goiko aldean bi idi-begi biribil
daude. Kanpoaldean, berriz, harritzko aldare bat dago,
antzina basilizek komunitatea elkartzeko edo jaiak ospa-
tzeko eduki zuten garrantziaren lekuko.

Herritar guztientzat esanguratsu

60 urtetik gora abade izan ostean, orain urte bitik erre-
tiroa hartuta dago. Ez dio hutsik egiten urteroko bisitari,
baina. Beste asko modura, bera ere bertara joaten da San
Lorentzo egunean, abuztuaren 10ean. Egun horretako
giroa deskribatu du: «Jai denean, mezaz gain, hamaika-
takoa, txistua eta danbolina eta dantzaldiak izan ohi dira.
Herritarrontzat eraikin esanguratsua da; gaztelua baino
gehiago, nahiz eta horrek hainbaten artean entzute han-



**Jesus
Arrien
Erkoreka**
(Abadea)

**«Toki aparta da,
kultur balioagatik
eta paduraren
ikuspegiagatik»**

diagoa eduki», azaldu du. Eta hartu-eman hori ez dute eten
belaunaldi gazteagoek. «Bertan bazkaltzeko ohitura hartu
dute», azaldu du.



**GAUTEGIZ
ARTEAGAKO
UDALA**

Herriko enparantza, 1
94-625 29 53

udala@egautegizarteaga.eus

www.turismogautegizarteaga.eus

HITZA

BANDERA ZURIA

FUTURO

BANDERA BLANCA

DAMNATIO

2025/04/23 - 2025/09/28

FERNANDO SÁNCHEZ CASTILLO

COMISARIADA POR MANUELA PEDRÓN NICOLAU Y JAIME GONZÁLEZ CELA

ALDIBATERAKO ERAKUSKETA



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa

Nabarniz

PLAZAKO JESARLEKUA



Nerea Zabala Urionaguena



**Nerea
Zabala
Urionaguena**
(Erizaina eta
psikologoa)

«Domekero, batu eta bertan momentuan erabakitzen dugu norantz jo»

Gernika-Lumon jaio, baina Munitibarren «hazia eta hezia» da Nerea Zabala Urionaguena. «Erraz moldatu nintzen Nabarnizera. Orain hamabi urte daramatzat bertan bizitzen», dio. Horren adibide, Nabarnizen ibiltarien taldeko partaide da, pandemia garaitik inguruak ezagutzeko martxan daukaten ekimena. Plazako eserleku bat dute elkartzeko leku eta erreferentzi. Hantxe egiten dute juntadizoa domekero 09:30ean, kanpaiekin batera, eguraldia era batekoa nahiz bestekoa izan.

«Berez-berez» hasi ziren biltzen nabarniztarrek pandemia garaian, herri mugakideetara joateko baimena eman zuten sasoiari, eta harrezkero eutsi egin diote ohiturari. «Domekero batzen gara, hutsik egin barik, eta bertan momentuan erabakitzen dugu norantz jo. Batzuetan oinezko ibilbideak egiten ditugu; besteetan, autoz goaz».

Ezagututako bazterrak

Ordu bizia aukeratu dute hitzordurako, ez baitira ingurumarietara osteraz egiteko ordu horretan plazatik dabilzan bakarrik, bizikleta plana daukatenekin topo egin ohi dute eta. Zabalari arrapaladan datozkio bisitatu dituzten lekuak: Ilunzar, Galarregi, Arrola, Omako basoa, Gastiburu eta Ondaroko kobak, Katilutxu, Oiz... «Nabarnizko ibiltarien taldeari esker, hainbat leku ikusi ditugu, lehen guretzat ezezagunak». Dio ekimen hori dela eta ez dela orain herritar guztiak elkarregaz hartu-emanetan daudela. «Eta zabalik gaude etortzen den edonori, adina eta sasoi dena delakoa izanda ere. Ibiltzeko gogoia da baldintza bakarra. Datorrena dator. Eta ongiatorria da».

Eguerdirako, denak berriro bueltan dira. Eta han «herria egiten» jarraitzen dute, saretzen.



NABARNIZKO UDALA

Ellexalde auzoa, 2
94-625 50 77
faxa: 94-625 65 12
udala@nabarniz.eus
www.nabarniz.eus

HITZA

Sentrazioz betetako tokia

HOTEL
gametxo



Ogoñope

SURF IKASTAROAK

LAGAKO HONDARTZA



Aste bateko ikastaroa, bost egun ---> 100€

Egun bateko ikastaroa ---> 25€

ogonopesurfeskola@gmail.com

664579954



Andra Maria kalea, z/g
Gernika-Lumo (Bizkaia)
94-625 19 30

www.euskalsouveniris.com



@euskalsouveniris

EUSKAL SOUVENIRIS

*Euskal Herriko produktuak, oroigarriak eta opariak.
Gure lurraldearekin inoiz ahaztu ez zaitezten!*

BOISE JAIALDIA

UZTAILAK 29 - ABUZTUAK 3, 2025 ◆ BOISE, IDAHO

BIDAIA ANTOLATUAK



auka bidaiak

94 625 7414

688 68 63 45

Email: auka@auka.eu

Gernika-Lumo





urdaibai
Turismo aktiboa eta abentura



urlekeitio
Turismo aktiboa eta abentura



ABENTURAZ ETA NATURAZ GOZATZEKO 11 AUKERA



IKASTETXE TALDEENTZAT EGITARAU BEREZIAK



Ur Urdaibai

Arketa auzoa, z/g (48311 IBARRANGELU)

946 276 661 / 688 635 190

www.urdaibai.com / info@urdaibai.com

Ur Lekeitio

Ezpeleta, 12 (48280 LEKEITIO)

946 243 586

www.urlekeitio.com / info@urlekeitio.com